

"La Caixa" beka, Espainiako unibertsitateetan doktorego ikasketak egiteko

Interneteko helbidea:

http://obrasocial.lacaixa.es/ambitos/becas/doctoradoenespana_es.html

Deialdiaren helburua eta onuradunak:

"La Caixa" Fundazioak doktorego ikasketa ofizialak egiteko **25 beka** banatzeko deialdia egin du, eta horiek bukatutakoan doktorego tesia irakurtzeko, Espainiako unibertsitate batean, betiere.

Ezaugarriak:

1. Beka jaso dezaketen doktorego programek Europako Unibertsitate Eremura egokituta eta doktorego ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak araututa egon behar dute.
2. Bekadunek 2015/2016 ikasturtean egon behar dute helburuko unibertsitateetan eta, zehatzago, 2015eko irailetik 2016ko urtarrilera.
3. Deialdi honetan **jakintza arlo guztiak** sartzen dira. Doktoregoa egiteko eskakizun guztiak betetzen dituzten eta maila honetako ikasketetan lehen aldiz matrikulatzen diren pertsona guztiei zuzenduta daude beka.
4. Beken iraupena urtebetekoa izango da. Halere, urtebeteko luzapenak egin daitezke, gehienez lau urte iraun arte.
5. Beka jasotzen duten hautagaiek gutxienez 6 hilabeteko egonaldiak egin behar dituzte atzerrian doktoregoaren lehenengo hiru urteetan.

Eskaerak aurkezteko epea:

Epea 2015eko otsailaren 23an bukatuko da. *On-line* sistemak ez du aukerarik ematen **2015eko otsailaren 23ko 14:00etatik aurrera (penintsulako ordua)** eskaerak elektronikoki ixteko eta bidaltzeko.

Zuzkidura ekonomikoa:

Guztira **113.500 euroko** zuzkidura emango da, gehienez lau urterako. Zenbateko honen barruan daude bekadunaren ordainketa, unibertsitateak ordaindu beharko lituzkeen gizarte segurantzako kuotak eta, urtero, gastu osagarrietarako zuzkidura, esate baterako, matrikula eta honi loturiko tasak ordaintzeko, prestakuntza osagarriak, liburuak, programa informatikoak, harpidetzak, ponentzietarako izen-ematea edo bidaia eta aseguruak.

Nolanahi ere, honako hauek izango dira gehienez jaso ahalko diren zenbatekoak:

- Hileko hamabi ordainsari gordin, lehenengo urtean **1.560 eurokoak**.
- Hileko hamabi ordainsari gordin, bigarren urtean **1.620 eurokoak**.
- Hileko hamabi ordainsari gordin, hirugarren urtean **1.740 eurokoak**.
- Hileko hamabi ordainsari gordin, laugarren urtean **1.900 eurokoak**.
- Urteko zuzkidura bat, gastu osagarrietarako, **1.500 eurokoa**, lehenengo eta bigarren urtean.
- Urteko zuzkidura bat, gastu osagarrietarako, **1.700 eurokoa**, hirugarren eta laugarren urtean.

Eskatzaileen eskakizunak:

- Eskatzaileek nazionalitate espainiarra izan beharko dute.
- Indarrean dauden araudiekin bat etorriz, eskaera aurkeztu ahalko dute doktorego programa ofizial batera sartzeko eskakizunak betetzen dituzten pertsonak, edo 2014ko irailean eskakizunak betetzea aurrez ikusten dutenak, betiere, doktorego ikasketetan lehenago matrikulatu ez badira.
- Beka eman ahal izateko, eskatzaileak hautatutako doktorego programa ofizialean onartuta egon behar du.
- Eskatzaileek ingelesa behar bezala dakitela egiaztatu beharko dute.
- Beka jasotzen duten ikasleek 2015/2016 ikasturtean hasi beharko dute doktorego ikasketak egiten, eta beranduenez 2016ko urtarrilean kasuan kasuko helburuko unibertsitatean egon beharko dute.

Eskaera aurkezteko prozedura:

Hautagaiek Internet bidez aurkeztu beharko dute eskaera, La Caixako Gizarte Ekintzaren webguneko beken atalean eskuragarri dagoen eskaeren aplikazioaren bitartez (www.laCaixa.es/ObraSocial).

Beste datu batzuen artean, eskatzaileak eskaeren aplikazioaren bitartez honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- 1.- Datu pertsonalak.
- 2.- Egin nahi dituen ikasketei buruzko informazioa.
- 3.- Hautagaia beka eskatzera bultzatu duten motibazio akademiko eta pertsonalei buruzko azalpena. Idatziak pertsonala eta zehatza izan behar du.
- 4.- Curriculum akademikoa eta, hala izanez gero, profesionala.

5.- Tesi zuzendariaren identifikazioa; zuzendariak eskaeren aplikaziora sarbidea izango du, eta informazioa eman ahalko du.

Hautagaiak, bidenabar, gutxienez erreferentziazko bi gutun jasotzeko izapideak egin beharko ditu, eskaerak aurkezteko aplikazioaren bitartez eta programa ixteko eguna baino lehen; tesi zuzendaria ez diren beste unibertsitate irakasle batzuek idatzi beharko dituzte gutunak, edota beste pertsona nabarmen batzuek, baldin eta hautagaiak haiekin harreman akademiko edo profesional izan badu.

Inprimaki elektronikoa betetzearekin batera, hautagaiak agiri hauek ere aurkeztu behar dituzte eskaeran:

- Nortasun Agiri Nazionalaren kopia, bi aldeetatik.
- Duela gutxiko argazki bat, koloretan, txartel tamainakoa.
- Hautagaiaren gradu edo lizentziatura ikasketen, eta, izanez gero, master mailako ikasketen ziurtagiri akademiko osoaren kopia, dokumentu bakarrean; agiri horretan jaso beharko dira ikaslearen izena eta abizenak, unibertsitatea, egindako ikasketak, ikasgai eta emaitza guztiak, maila guztietakoak, baita titulazioaren kredituak guztira eta gainditutako kredituak ere.
- Ingeles mailaren ziurtagiriaren kopia.
- Unibertsitateak emandako adostasun gutuna (eskaeren aplikaziotik deskarga daiteke), indarrean dagoen legediak finkatutako moduan.

Unibertsitateak igorritako adostasun gutuna jasotzeko, hautagaiak e-mail bat bidali beharko dute convocatorias.dgi@ehu.es helbidera **2014ko otsailaren 10a baino lehen**; eskaeraren zirriborro bat erantsi beharko zaio e-mail honi, eta bertan jaso beharko dira, gutxienez, datu pertsonalak, hautagaiak egin nahi dituen ikasketei buruzko informazioa, eta tesi zuzendariaren identifikazioa.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

- **La Caixa fundazioaren kontaktua:**

e-mail: becas@fundacionlacaixa.es

Telefonoa: 93 404 67 35

- **UPV/EHUren kontaktua:**

e-mail: convocatorias.dgi@ehu.es

Harremanetarako telefonoa: 94 601 80 08

